



Donostia, 2015eko azaroaren 20a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

KARLOS I.aren HIRIBIDEKO LUR AZPIKO PASABIDEAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAK (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) azaroaren 16an izan zuen bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuak ez du iritzi bera azaldu Karlos I.aren azpiko pasabidearen etorkizunaz. Izan ere, alde batetik, Ernesto Gascok jakinarazi zuen bete egin behar zituztela bai pasabidea eta baita pasabidera sartzeko eskailerak eta aldapak ere, eta bidearen bi aldeetan diren espaloiekin berdindu toki hura.

Gune Publikoetako Batzordeak (Obrak Eta Zerbitzuak) egin zuen bileran, berriz, Pilar Aranak erantzun zigun, gure taldeak egindako interpelazio baten inguruan, aztertzen ari direla aurreko Gobernuak egindako azterlana, bizikletak uzteko erabiltzea pasabidea.

Era berean, inguruko bizilagun guztiak ere ez dira iritzi berekoak: pasabidea betiko ixtearen aldekoak dira batzuk eta irekita uztearen aldekoak beste batzuk.

Horiek horrela direla, nola Gobernuan bertan hala inguruko bizilagunen artean ere iritzi bat baino gehiago denez gai honen inguruan, guk uste dugu Karlos I.aren azpiko pasabidearen etorkizunari heltzeko modu bat herritarren parte hartze zuzena dela. Hori dela eta, hauxe da gure



KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio parte hartze prozesu bat egiteko Karlos I.aren azpiko pasabidearen etorkizunaz, gogoeta egiteko unetik bertatik inplikatzeko bizilagunak eta haiek izateko pasabide horrek zer erabilera izan behar duen erabaki eta, ahal bada, baita proiektua diseinatuko dutenak ere.

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostiako zinegotzia.